

MANIFESTUA

DAP edo Debagoieneko Antzerki Plataforma gure bailaran euskarazko antzerkia eta arte eszenikoak eragin, indartu, eta sartzeko asmoarekin sortutako proiektu kulturala da.

Proiektu honetan *“kultura eztabaida kultural edo kulturalistetatik urruntzeko beharra azpimarratu nahi dugu, gizartearen eraldaketan funtsezko eragile gisa inplikatzeko. Kultura, demokrazia eta herritarren arteko artikulazioa sustatzea da helburua, kultur-politikak egungo giza harremanak eraldatzeko funtsezko tresna bihur daitezen”*.¹

Kulturaren ikuspegi honetatik hasten gara bada lanean, D2030 egitasmoaren eskutik, non Agenda 2030eko erronkak Debagoienean identifikatu ostean, hauei erantzuteko guztiz oinarritzakoa agertzen zaigun kultura, kultura eraldaketa sozialerako giltza gisa ulertuta noski. Kulturaren pentsatzen dugunean, bi aukera agertu ohi dira: bata, gizartearen formakuntzaren politikak; bestea, gozamen hutsa. Hauen arteko oreka behar da, eta beraz DAPetik formakuntzaren bidea hartu dugu, gizartearen eraldaketa oinarritzakoa eta sakona bilatzen dugulako, ez bakarrik itxurazkoa.

“Instituzioek “ogia eta zirkuaren” forma berrituak sortzeko duten tentazioa jasanezina da, nire ustez, baina, aldi berean, jakin beharko lukete belarra mozten ari direla oinpean: formaziorako borondaterik ez badago, esku-hartze publikoa xahutzea besterik ez da”.²

Askotan pentsatzen dugu gure gizartea asko aldatu dela, eta bai, noski, aldatu da, baina oinarrian ez gaude oso urrun orain 90 urte Lorca esan zuenetik: *“Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi. Nik, gose banintz eta kalean babesgabe banengo, ez nuke ogi bat eskatuko, ogi erdi bat eta liburu bat baizik. Eta nik hemendik bortizki erasotzen diet aldarrikapen ekonomikoek bakarrik hitz egiten dutenei, aldarrikapen kulturalak inoiz aipatu gabe, hori baita herriek oihuka eskatzen dutena”*.³

Hala bada, kulturaren aldeko apostua egin nahi dugu, gure kasuan antzerkiaren bidez, gure sektorea, ezagutzen duguna eta maite duguna; badakigulako kultura garapenerako giltza dela, eta hori aitortu ezean gure bailaran garapen jasangarria, bakea eta ongizatea bilatzea oso zaila izango delako⁴.

¹ Vich, Victor (2014). *Desculturizar la cultura. Retos actuales de las políticas culturales*. Lima: Pontificia Universidad Católica del Perú. (<http://www.ceapedi.com.ar/imagenes/biblioteca/libreria/372.pdf>)

² Broncano, Fernando (2012). *Para definir políticas culturales*. (<http://labinformacion.blogspot.com/2012/10/para-definir-politicas-culturales.html>)

³ Lorca, Federico García (1931). *Medio pan y un libro*.

⁴ Agenda 21 kulturala. *La cultura es el cuarto pilar del desarrollo sostenible*. (<http://www.agenda21culture.net>)

Debagoieneko Antzerki Plataforma, DAP, apustu bat da, arrisku bat, behar bat, akaso utopia bat... eta aldi berean itxaropen bat, eraldaketarena eta garapen kolektiboarena.

Eraldaketa guztiek oinarri sendo bat behar dute, eta hori da sortu nahi duguna, egingo dugun guztiarentzako eta bailaran antzerkiarekin lotuta gertatuko den ororentzako oinarri bat, sare bat, elkarlanerako espazio bat, *plataforma* hitza erabili dugu.

DAPen helburua bailarako arte eszenikoei tokia egitea da, merezi duten presentzia ematea, hauek biztanleoi eskaini diezaguketarentzako aukerak irekiz. Guk gure azalean bizi izan dugu antzerkiaren eragina, eta ez dugu inor behartuko, baina herritar guztiei aukera eskaini nahi diegu. Eta horretarako Debagoieneko testuinguruan bertan egin behar dugu lan, bertako antzerkiari eta sormenari aukera eman, bidean lagundu, antzerkira joatea ez dadila izan urtean birritan egiten dugun zerbait, izan gaitetzen ikusle, izan gaitetzen ikasle, izan gaitetzen komunitate, egin dezagun herrigintza gorputza eta emozioak erdian jarrita, eta batez ere goza dezagun antzerkia elkarrekin.

Kulturak tokia behar du, kulturak egiten du herria, herriak egiten du kultura, kulturaren bidez sortzen ditugu komunitatea eta etorkizun posibleak, kulturak egiten gaitu garena, kulturak kokatzen gaitu munduan, kulturak erabakitzen ditu hartzen ditugun norabideak, sinpleago esanda, kultura gara. Beraz, antzeman dezagun nortzuk garen, pentsatu dezagun nor izan nahi dugun, nola iritsi izan nahi dugun horretara, eta erabili dezagun utopia oinez hasteko.

"Utopia zerumugan dago. Bi urrats ematen ditut, bi pauso urruntzen da eta zerumuga hamar urrats harantzago doa. Orduan, zertarako balio du utopiak? Horretarako, ibiltzeko balio du".⁵

“Sentitu, gorpuztu, izan... Antzerkia”

- DAP-



⁵ Galeano, Eduardo. Utopiak zertarako balio zuen galdetu ziotenean elkarrizketa baten.